

EUSKAL ETA KARTVELIAR IZEN BATZUREN KIDETASUNAZ

Xabier KINTANA

Ez da gaurkoa, ustez edo jakitez, euskaldunok etorkiz Kaukasiako herriekin lotzeko ahalegina. Asko ardurat izan dira gure aurretik bertako hizkuntzen eta euskara arteko harremanak nabarerazten, saiatuenetako batzu, zalantzak gabe, Karl Bouda eta René Laton jaunak, oraintsu hilak, izanik.

Mitxelenak, bai bataren eta bai bestearen lan-metodologia kritikatu izan du, gonbaratzekotan gauza gonbaragarriak gonbaratu behar direla esanez, eta Pirinioen alde honetan, euskarari gagozkiola, zenbait dialektotan banaturiko hizkuntza bakarra baldin badugu, han, aldiz, 32 hizkuntzarekin egiten dugu topo, lau familia ezberdinetan banaturik daudenak. Hangoen jatorrizko batasuna oraindik frogatzeko dagoelarik, nekez saia gaitezke probetxuz, hitz banaka batzuren antzaz baliatuz, hango eta hemengo edozein hizkuntza, dialekto edo aldakitatik jasoak bestalde, elkarren jatorkidetasuna erakusten, hor, azken buruan, kasualitate –edo eta irudimen– hutsa baitatza lagungarri.

Metodologi bide bi

Bi dirateke, Tbilisiko Unibertsitateko hitzaldi batetan duela bi urte adiera zi nuenez, orain arteko bide erratutik irteteko moduak. Jar ditzagun, aldez aurretik, bi hipotesi, lanerako gai: Bata, Ibero-Kaukasiar hizkuntza guztiak, kaukasiar ikerketen aitalehen argia den Arnold Txikobavak nahi lukeenez, jatorkideak direla, berau oraindik frogatu ez den arren. Bia, pentsa dezagun, alderantziz, ez dela horrelakorik, hots, ibero-kaukasiar hizkuntzek, tipologi aldetik eta hauzakidetasunagatik dituzketen ezaugarri komun ulergarriz landa, ez dutela etorki berbera, aspaldion, eta Georgian bertan ere bai, gero eta hizkuntzari gehiagok, eskeptikoki, uste duenez.

Euskara haien alderatzeko, lehenbiziko kasuan, aitzin-kaukasiera eta aitzineuskara, biak barneraikuntzaz taiuturik, gonbaratu beharko genituzke. Euskararen kasuan, dokumentazio-zaharra erabat falta dugun hitzetan izan

ezik, ez litzateke hain zaila oinarrizko lexikoaren aitzin-forma hipotetikoak gertatzea. Ibero-kaukasiar hizkuntzen kasuan, ordea, hori ez da inola ere posible, erro komunak, urri izateaz gainera, oso zalantzakorak direlako, eta ez dute gehienetan familia guztietarako balio. Hortaz, hipotesi hau onartzeko kasuan ere, itxaron beharko genuke aitzin-kaukasiera delako hori barnerai-kuntzaz itxuratu arte, bestela, familia bateko edo besteko hitzek, oraingo (edo lehenagoko) euskararekin antzik ukantzen, ez lukete ezer frogatuko, aitzin-kaukasieraren erro komunekoak ote diren ezin jakinki, halakoak berdin gerta bailitezke historiaurrean beste hizkuntza jadanik desagertuetatik izandako maileguak izatea. Dakusagunez, bide honek ez garamatza, gaurkoz bederen, inora.

Bigarren hipotesia onestekotan, hots, ibero-kaukasiar hizkuntzen jatorkidetasunik eza (berau frogatu arte behintzat), ontzat eman daiteke, abiaburutzat, agian ba dagokeela zer ikusirik euskara eta familia horietako baten edo besteren artean, batarekin baldin badu, besteekin harremanik izan ez arren.

Hipotesi hau, bestalde, funtsean ez lihoake ibero-kaukasiar hizkuntzen jatorkidetasunaren hipotesiaren kontra, eta lan-metodologiari legokioke, soilki. Honen arauera, euskara, -aitzineuskara hobe- bertako familia bakoitziarekin gonbaratu beharko litzateke, banan banan harturik, bakoitzarekin aurki lekizkiodeen kidetasunek besteekikoak ezertan aurrejuzkatu gabe. Modu honetara gerta liteke familia konkretu batekin -edo gehiagorekin- zer ikusia izatea baina besteekin ez, eta horrek lagunduko luke, agian, Ibero-kaukasiar jatorkidetasunaren hipotesia haietara murrizteria edo, euskararekiko loturak ikusiz, horien ezaugarri komunak hobeki aztertzera.

Hau guztiau, noski, ontzat eman daiteke euskara eta kaukasiar hizkuntza horien arteko kidetasuna erróetikoa, etorkizkoa dela frogatu nahi bada.

Hirurgarren bidea

Beste hipotesirik ere aurkez daiteke, ez beharbada, aurrekoan bezain liluragarria, helburuz mugatuago eta apalago dena. Nolanahi ere den, ez genuke, ene ustez, aurreritziz eta besterik gabe, hora aztertu aurretik bazterrean utzi behar.

Orain arteko ikerketa guztiak lexikoari zuzendurik doaz, eta halabeharrez, horren bidez, lege fonetikoen hoskidetasunaz baliatuz, aurki baitaitezke erro komunak. Tipologiak, bistan da, ezin dezake arlo honetan gehiegirik frogatu.

Litekeena da baina, euskara eta kaukasiar hizkuntzen arteko hitz kidetasuna (hots korrespondentzia eta guzti) lexikoaren atal konkretu batetan mugaturik egotea, hala edo holako kultura edo zibilizazio maila batetako harremanengatik historiaurreko maileguz esplikatzeko. Lexiko estratu hau, zaharra izanik ere, ez litzateke orduan jatorrizko etorki komunaren frogatzea, behialako kultur harremanen seinalea baizik.

Azal dezadan hau, Vittore Pisani-k frantsesa eta ingelesarekin egin zuen bezala, exenplu batez. Gaztelaniaz eta georgieraz ba dira hitz bi, *olio* eta *indaba*, bai itxuraz eta bai esanguraz ere, antz nabaria dutenak: gazi. *aceite*, *alubia*; geor. *zeti*, *lobio*. Kasu honetan, ordea, itxurak ez gaitu itsutzen zeren, jakin, ba dakigu bata eta bestea mintzairaz bietan hirurgaren hizkuntza batetik jasoak direla. Lehen hitza arabierazko *zéit*-tik dator. Bigarrena espanierak arabierazko *lúbiya'*-tik hartu zuen, hitz hori jatorriz iraniarra izanik, georgierak, seguraski, hauzo herri hurbilago horretatik mailegaturik.

Honela bada, dokumentazioari eta historiari esker, arabiar, gaztelania eta georgieraren arteko lexiko kidetasun hori ba dakigu nola uler. Hizkuntza prestatzailea, hots, arabiera, gaur galdua eta ezezaguna bagenu, aldiz, mailegu horien zentzua ilunik legoke, gaztelania eta georgieraren arteko nolabaiteko jatorri komunaren susmoak sorteraziz.

Eta gerta liteke euskararekiko hauzia, azken finean, honelako zerbaizitatea, gure kasuan Historiaurrean Mediterranioaren iparraldeko hizkuntza aurreindoeuroparen funtzioa prestatzaile eta bitartekoarena izan ote zen ezin jakinez. Hortxe dugu, esaterako, euskarrako *orein* (<**oreni* <**oleni*) eta georgierazko *iremi* «orein» (<**iren-* <**iler-*) hitzekiko hauzia, indoeuroparrak errazki azal litekeena: eslavieraz zahar ean *jeleni*, lituanieraz *elnis*, armenieraz *etn*, grekoz *ellos*, *elaphos*, galieraz *ela:z*, latinez *alces*.

Azken hipotesi honek, noski, asko konplikatuko liguke panorama, zeren noizbaiteko kultur hitzei gagozkiela, posible baita, familiaik horregatik etorki berekoak izan ez arren, euskaran bezala, Kaukasiako hizkuntza askotan ere hitz zahar horien zantzoa nola edo hala aurkitzea, modu honetara orain arteko gonbaraketa-modu itxuraz desordenatuari balio berria emanet. Posible ere bida, gauzak okerreneneraino eramanez gero, hipotesi biak, nolabait, elkarrekin gurutzatzea, hots, euskarak kaukasiar hizkuntz familia konkretu batekin genealogi loturak izateaz gainera, besteetatik maileguzko hitz ugari izatea.

Linguistika eta Historiaurrelariak

Nils M. Holmer-ek seinalatu duenez, edozein hizkuntzatan ba dira adin eta egonkortasun ezberdineko estratuak, kultur lexikoa, gehienetan azalezkona eta, beraz, berriena izanik. Berau kontutan harturik, begien bistan dago ba dituguña zenbait animalia eta produktu, jatorriz Euskal Herrikoak izan ez arren, euskarraz indoeuropar izenik ez dutenak. Hauen kasuan, euskara Pirinioetan bertan sortua edo gutxienez hemen aspaldidanikoa dela onartuz ere, ezin genezake hitz horien bertokotasuna erabat segurta.

Hona hemen horrelako batzu: *ardo* (<**ardano*), *ardi*, *ardatz*, georgierazko *qurz* en- «mahats», *werz* «ahari», *yerz* «ardatz» -ekin gonbaragari¹, kasu guztietan euskarazko -rd- taldeari georgieraz -rz- dagokiola. Beste hitz

1. Gonbaraketa, formaz eta adieraz, berdin hedatiteke *gurdí* hitzera.

bat ere gehi genezake, halako kultur itxurarik gabea, *kerz-*, gaur «platerkada» baina georg. zaharrean «erdi» esan nahi zuena, euskarazko *erdi*-rekin, noski, alderatzeko².

Antzeko hoskidetasuna aurki daiteke euskarazko *z* eta georgierazko *t* eta *č* artean, fonema biok, aitzineuskararen urritasun fonologikoagatik, fonema bakar batean bilduta gelditu zirelako seinale litzatekeena:

| <i>Georg.</i> | <i>Eusk.</i> |
|-------------------|------------------------------|
| *tot- | «abar» ³ |
| gwrit- | «usapal» |
| *tqar- | «uzker egin» |
| *butkar- | «erle» |
| tan- | «neurri» |
| γmert- | «Jainkoa» |
| *xu(s1)t- | «bost» |
| *da(s)tw- | «hartz» |
| tuta ⁵ | «mazusta» |
| *twal- | «begi» |
| | zotz (< *zoz) |
| | urzo |
| | uzker |
| | ezko, ezti, erle (< *ezle ?) |
| | zehe |
| | urzi |
| | borz < *burz (?) |
| | hartz < *harz |
| | marzuza |
| | zulo |

Kidetasun hau, gainera, deklinazioan ere, kasu instrumentalean ager liteke: geor. -it(a), eusk. -(e)z (cfr. *xelit xel* eta *ekuz esku*, *gulit da sulit* eta *bibotzez eta arimaz*). Gauza bera susma liteke aditzen 1. eta 2. pertsonaren pluralgilean ere: geor. -i, eusk. -z; honetara, georg. *mividivar* «noa» / *mividivart* «goaz»; *gicnobs* «hazagu, ezagutzen hau» / *gicnobi* «zazaguz, ezagutzen zaitu(zte)».

Zenbakiei dagokienez ere ba dirateke halako zenbait kidetasun pitxi: geor. *ert- «bat» euskarazko *bat-ekin* erlaziona genezake: *bat* < *bede < *beder- < *bedre < *berde (cfr. *bedratzi*; geor. or- < *jor- «bi» eta eusk. *zor-tzi*, eta geor. at- < *a(s1)t- «hamar» eta eusk. -tzi, *zortzi*, *bederatzi* hitzak «bi hamarri (kenduta) eta «bat hamarri (kenduta)» bailiren ulerturik⁶.

Euskarazko *sei*-rako betidanik nabaritua izan da beste hizkuntza indoeuropear eta semitikoekiko antza. *Zazpi-n*, Klimovek georgierazko *šwid-i*-rako

2. Yuri Vl. Zytsar-en ustez, hitz hauen artean georgierazko *zyl*- «indar» eta euskarazko *in-dar* sar litezke, esangura berekoak biak. Bakoitzari berres ematea zuzenbidea delarik, esan dezadan, nork bere aldetik, Jan Braun-ek eta nik *ando* eta *quržn*- hitzen arteko lotura batera aurkitu uste genuela.

3. Izartxoaz ematen diren hitzak, aitzinkartvelierarako etimo barneraiak dira, honetan G. A. Klimov-en *Etimologičeskiy slovar kartvel'skix jazykov*, Moskva, 1964, liburutik jasoak. Bestelakoak georgiera modernoarenak dira.

4. Hitz honi Klimovek «yermat- etimologia jartzen dio, hala ere.

5. Hitz hau, jatorriz iraniarra da eta *mos voyageur* horietako gainera. Nolanahi ere den, espikatzeko litzateke, jartzen dugun kidetasuna egiazkoa balitz, nola heldua zaigun Ekiadle Hurbiletek hona, tarteko hizkuntzetan falta delarik.

6. Zytsar-en oharrei esker, aipa dezadan eusk. *lau*, georg. *rwa-*, gaur «zortzi», geor. zah. «lau», bezala, agian mailegu semitiko zaharra dela (cfr. arab. *arba'at*, hebreieraz *arba'a*).

jarritako etimologia ikusita (< **šiwd-*; cfr. indoeur. **septm*), ez litzateke, beharbada, arriskugarriegi izango *sept-* > **setp-* > *zazpi* etorpidea ikustea.

Azkenik, beste hitz andana bat ezartzen ditugu, adiera eta forma aldetik liluragarri xamarak, hoskidetasun erregularrik gabe ere, hurrengo estudio sakonagoen zain:

| <i>Georg.</i> | | <i>Eusk.</i> |
|---------------|------------------|-------------------|
| *wenaq- | «mahats» | mahats < *banas |
| *uχel- | «uztarri» | uhal |
| *ʒiaŋl- | «txakur» | zakur |
| *rkina- | «burdina» | burdina |
| *okro- | «urre» | urre < urrhe |
| *(s)z̥ie- | «esne» | esne < *esdene |
| *k̥bil- | «hagin» | hagin |
| *čiqaŋ- | «ezkur, ezkanda» | ezk-anda, ezk-ur |
| *anciʃ- | «intsusa» | intsusa < *ensus- |
| *bger- | «negar egin» | negar |
| sun- | «usain» | usain < *usani |
| *brg- | «burrukatu» | burruka |
| ager- | «horra hor» | ageri, agiri |
| *kal- | «falta izan» | gal(du) < kal- |

Edozein kasutan, eta hemen adierazi dizkizuedan susmoak funtsatuak balira, lan metodologiko bat egiteko, historiaurrelariek hizkuntzariei beren laguntasunę eskaini beharko liekete, ehiztari, artzain, biltzaile, nekazari eta bestelako kultur sasoi historikoen data eta tresneria, abere eta produktuak azalduz, hortik hasita lexiko bilketa sistematikoak egiteko. Ene ustez, hitz-kidetasun eta mailegu horien dataziorako, dokumentu idatzirik ezaz, historiurrelarien laguntena ezinbestekoa genuke.

Zer esanik ez, lan hauek fruiturik emango badute, harreman hastuagoak eduki beharko ditugu Iberia bien arteko azterlarien artean bai hizkuntzari-ztan, bai etnologian eta bai arkeologian ere, gaur, zorionez, hemengoen haratzeaz eta hangoen honatzeaz, Herri bietako Zientzi eta Hizkuntz Akademiei esker, bide onetik doazenak berauek.

SUMMARY

The lack of methodological precision in Basque-Caucasic etymological comparisons has raised some scepticism and criticism among many linguists. It is not scientific to compare the Basque language on one hand - which, though divided into dialects, presents an obvious unity - with 32 languages on the other hand, divided into four different families whose relationship has not been proved up to this day.

We propose a working method. Since it has not yet been possible to prove the common origin of Caucasic languages, and, therefore, we can not state common

protoforms to compare with the Basque protoforms, the only method left would be to compare Basque with each of the four families independently; and in this way we would perhaps be able to discover some affinity with one of them, excluding the rest.

It is also suggested the possibility that many of the compared words are actually prehistoric borrowings which took place in some period of cultural expansion. Moreover, we find that such words as Basque «orein», Georgian «iremi» (deer) are borrowings from Indo-European; and some others as Basque «*ardano» (wine) and Georgian «qurzen» (grape); Basque «ardi» (sheep) and Georgian «werz» (ram); Basque «ardatz» and Georgian «yerz» (axis); Basque «erdiz» and Georgian «kerz» (half), which present a fairly acceptable phonetic correspondence, refer to a high level of civilization.

Next, some series of words are pointed out, in which the correspondence Georgian *t* and *t̪* / Basque *z* –reduced in a poorer phonetic system– is fairly regular, as well as similarities in numerals and other words in which, although the form and meaning are quite similar, it has not been possible to establish a clear correspondence.

In want of ancient documents, collaboration among different investigators, linguists, ethnologists, prehistorians, etc; is requested to help solve the problem of the Basque-Caucasic relationship.

RESUMEN

La falta de rigor metodológico en las comparaciones etimológicas vasco-caucásicas ha creado excepticismo y levantado lógicas críticas entre muchos investigadores. No es serio comparar, por una parte, al vasco, que, aunque dividido en dialectos, presenta una unidad notoria, con 32 lenguas en la otra, las cuales están fragmentadas en 4 familias sin parentesco común probado hasta la fecha.

El autor expone un método de trabajo. Dado que no ha podido ser probado aún el origen común de las lenguas caucásicas, y por lo tanto no se pueden postular protoformas comunes a comparar con las protoformas vascas, el único medio restante estribaría en comparar el vasco, de manera independiente, con cada una de las 4 familias en particular, pues tal vez se logre descubrir un parentesco con alguna de ellas, con exclusión de las demás.

Se indica, además, la posibilidad de que muchas de las palabras a comparar sean en realidad préstamos prehistóricos tomados en algún período de irradiación cultural. Se da precisamente el caso que algunas de estas palabras, vasc. *orein*, geor. *iremi* «ciervo», son evidentemente préstamos del indoeuropeo, y otras como vasc. **ardano* «vino» y georg. *qurzen-* «uva», vasc. *ardi* «oveja» y georg. *werz-* «carnero», vasc. *ardatz* y georg. *yerz-* «eje», vasc. *erdiz* y georg. *kerz-* «mitad», que presentan una correspondencia fonética muy aceptable, se refieren a un nivel de civilización notable.

Se indican a continuación unas series de palabras en las que la correspondencia del georg. *t* y *t̪* con el vasco *z* (con reducción al pasar a un sistema fonético más pobre) es bastante regular, así como coincidencias en los numerales y otras palabras en las que si bien la forma y el sentido es muy similar, no ha sido posible establecer una correspondencia clara.

A falta de documentación antigua, se pide una colaboración entre distintos investigadores, lingüistas, etnólogos, prehistoriadores, etc. para ayudar a solucionar el problema de las relaciones vasco-caucásicas.

RÉSUMÉ

Le manque de rigueur méthodologique dans les comparaisons étymologiques basco-caucasiennes a engendré du scepticisme et a levé des critiques logiques entre.

beaucoup d'investigateurs. C'est pas sérieux de comparer, d'une part, le basque, lequel quoiqu'il soit divisé en dialectes, il présente une unité notoire, avec 32 langues lesquelles sont fragmentées en 4 familles sans parenté commune éprouvé jusqu'aujourd'hui.

L'auteur expose un méthode de travail. Puisqu'on n'a pas pu éprouver encore l'origine commun des langues caucasiques et, par ainsi on ne peut pas postuler des protoformes communes à comparer avec les protoformes basques, le seul moyen qui reste, serait de comparer le basque, d'une manière indépendante avec chacune des 4 familles particulièrement parce que peut-être on arrive à découvrir une parenté avec chacune d'elles avec exclusion des autres.

On indique, en plus, la possibilité de que beaucoup des mots à comparer soient, en réalité, des emprunts préhistoriques pris dans quelque période d'irradiation culturelle. Il existe précisément le fait de que quelques de ces mots, basque *orein*, géorgien *iremi* «cerf», sont évidemment des emprunts pris du indo-européen et des autres comme basque **ardano* «Vin» et géorgien *qurzen* «raisin», basque *ardi* «brebis» et géorgien *werz* «mouton», basque *ardatz* et géorgien *yerz* «axe», basque *erdi* et géorgien *kerz* «moitié», que présentent une correspondance phonétique acceptable, ces mots appartiennent à un niveau de civilisation remarquable.

On indique après des séries de mots dans lesquelles la correspondance du géorgien *t* et *tʃ* avec le basque *z* (avec réduction en passant à un système phonétique plus pauvre), est assez régulière, ainsi que des coïncidences dans les numéraux et des autres mots dans lesquels quoique la forme et le sens sont très similaires, il n'a pas été possible d'établir une correspondance évidente.

Faute de documentation, on demande une contribution entre des investigateurs, des linguistes, des ethnologues, des préhistoriens, etc. pour aider à solutionner le problème des relations basco-caucasiques.